

Marka zuriak indarra galtzen hasi dira, lehen aldiz azken hamar urtean

Irakurriko duzuen testuan hurrengo esamolde hauek azaltzen dira. Irakurri aurretik, jarri taldean eta komentatu lagunekin ea badakizuen zer esan nahi duten.



datuen arabera:

salmentak behera egin:

antza denez:

arrakastak goia jo:

kontsumo-joerak:

prezioak gora egin:

kontuan hartzeko beste hainbat puntu:

kalitate-maila onargarria:

esaterako:

Orain irakurri testua:

Datuen arabera, badirudi marka zurien **salmentak behera egin** duela azken urte honetan, eta, gainera, ez omen da hemen bakarrik gertatzen den fenomeno bat, Europa osoan baizik.

Urteak eta urteak eman ondoren saltoki handietako apalategietan gero eta leku gehiago hartzen, **antza denez**, marka zurien **arrakastak goia jo du**, eta kontsumitzaileak markako produktu gehiago erosten hasi dira.

Hori zergatik gertatu den zaila da esaten, baina **kontsumo-joerak** eta aldaketak aztertzeko jardunaldi batzuk antolatu zituen Universitat Oberta de Catalunya (UOC). Bertara, mundu osoko ikerlari eta uinbertsitate-irakasleak bildu ziren, eta hauek dira ondorioetako batzuk:

Zergatik atzerakada hori?

Pixkanaka-pixkanaka prezioak aldatzen joan dira. Poliki-poliki, zentimoka, baina gelditu gabe, produktu horien **prezioak gora egin du**, eta, bitarte horretan, betiko produktuek bereak hobetu dituzte, konpetentziari aurre egiteko.

Diru gehiago poltsikoan.

Kontsumitzaile batzuk, krisitik ondoen atera direnak, lehengo markak erosten hasi dira berriro.

Prezioa ez da dena.

Prezioa garrantzitsua da, baina badira **kontuan hartzeko beste hainbat puntu**: sustapenak, segurtasuna, aukera, konfiantza... Eta horiei denei begiratuta, gehienetan, dendan bertan erabakitzen dugu produktu bat edo bestea erostea. Garbi dago krisiarekin prezioari begiratzen ikasi dugula, baina ez da hori bakarrik.

Marka zurien aldaketa.

Bukatu da marka zuri merkeen mitoa. Gaur egun bi marka zuri mota daude. Batetik, betiko eredu dago: produktu merkeago bat, **kalitate-maila onargarria** duena. Eta, bestetik, eredu berri bat sortu da: kalitatezko produktu bat, markaren intsignia dena. Horrela, goi-mailako produktu eskusibo bat eskaintzen dute. Helburua da eroslea haien dendan bakarrik saltzen den produktu horren bila joatea. Momentu honetan, **esaterako**, denok ezagutzen ditugu krema zuri batzuk, bezeroak dendara erakartzen dituztenak. Hori da bilatzen dutena, eta marka handi guztiek diru asko gastatzen dute horrelako produkturen bat lortzeko.

Asmatu duzue? Begiratu ariketa honekin ea zenbat asmatu dituzuen.

- datuen arabera
- salmentak behera egin
- antza denez
- arrakastak goia jo
- kontsumo-joerak
- prezioak gora egin
- kontuan hartzeko beste hainbat puntu
- kalitate-maila onargarria
- esaterako



- dirudienez
- garestitu
- jaitsi
- baloratzeko gauzak
- nahiko onak
- datuek erakusten dutenez
- modak, mugimenduak
- adibidez
- topera iritsi

Komentatu taldean puntu hauek:

- Marka zuriak erosten dituzue?
- Baten bat iruditzen zaizue bereziki ona?
- Marka zurietan aldaketak nabaritu dituzue azken urteetan?
- Zalantzan zaudetenean, zergatik erabakitzen duzue marka bat erostea?
- Zer ohitura dituzue erosketak egiteko orduan?

Gehiago jakin nahi baduzue, sakatu hemen.

Erantzunak

datuen arabera	(datuek erakusten dutenez)
salmentak behera egin	(jaitsi)
antza denez	(dirudienez)
arrakastak goia jo	(topera iritsi)
kontsumo-joerak	(modak, mugimenduak)
prezioak gora egin	(garestitu)
kontuan hartzeko beste hainbat puntu	(baloratzeko gauzak)
kalitate-maila onargarria	(nahiko onak)
esaterako	(adibidez)